

IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUA (IHP) EGITEKO

—
GIDA TEORIKOA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



Diseinua eta maketazioa: Hik Hasi

Ilustrazioak: Paula Estévez

Argitaratzailea: Hezkuntza saila,

Eusko Jaurlaritza

Donostia kalea, 1

01010 Gasteiz

Edizioa

1.a, 2026ko urtarila

© Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa. Hezkuntza saila

<https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/departamento-educacion/>

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

AURKIBIDEA



1. MARKO TEORIKOA — 7

IKASTETXEKO HEZKUNTZA
PROIEKTUA (IHP) — 12

IHP-AREN EZAUGARRIAK — 14

IHP: IKASTETXEKO DOKUMENTUEN
ARTEKO LOTURA — 16



2. PROZESU PARTE-HARTZAILEA — 19

PROZESUAREN DISEINUA:
PLANIFIKAZIO ETA GARAPEN FASEA — 22

IKASTETXEAREN MISIOA, BISIOA,
BALIOAK ETA HELBURUAK — 26



3. IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUAREN DIMENTSIOAK ETA ARDATZAK — 29

ERANTZUKIDETASUNA — 32

1. ARDATZA: LIDERGO
PEDAGOGIKO PARTEKATUA
2. ARDATZA: HEZKUNTZA-KOMUNITATEAK
ETA LANKIDETZA-SAREAK

HEZKUNTZA BIKAINTRASUNA ETA IKASLEEN ARRAKASTA — 36

3. ARDATZA: EUSKARA, ELEANIZTASUNA
ETA KULTURA-ANIZTASUNA
4. ARDATZA: IRAKATSI ETA IKASTEKO PROZESUA
5. ARDATZA: IRAKASLEAK ERALDAKETA
PROZESUAREN ARDATZ GISA

EKITATEA ETA GIZARTE-KOHESTIOA — 48

6. ARDATZA: EKITATEA ETA INKLUSIOA
7. ARDATZA: BIZIKIDETZA, HEZKIDETZA
ETA ONGIZATE SOZIOEMOZIONALA

ETENGABEKO HOBETUNTZA ETA IRAUNKORTASUNA — 52

8. ARDATZA: DIGITALIZAZIOA
ETA JASANGARRITASUNA
9. ARDATZA: NAZIOARTEKOTZEA
10. ARDATZA: EBALUAZIOAREN
ETA BERRIKUNTZAREN KULTURA



4. IHP-AREN BERRIKUSKETA, DOIKUNTZA ETA KOMUNIKAZIOA — 61

Marko teorikoda

①

Sarrera

Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Legeak (17/2023) azpimarratzen du hezkuntza dela gizarte-kohesioa, berdintasuna eta garapen jasangarria sustatzeko tresnarik eraginkorrena.

Printzipio horiek oinarri hartuta sortu da Euskal Eskola Publikoa Eraldatzeko I. Plan Estrategikoa (2025-2028), ikastetxe publikoetako hezkuntza-jarduera eraldatzeko eta etorkizuneko erronkei erantzuteko gida gisa.

Plan Estrategikoa dimentsio pedagogikoa jartzen du erdigunean, eta ikasleen konpetentzien garapena, inklusioa eta ekitatea ditu ardatz nagusi. Haren helburua da politika publikoak, plangintza instituzionala eta ikastetxeetako eguneroko praktika pedagogikoak lerrokatzea eta koherentziaz uztartzea, hezkuntza-sistemaren eraginkortasuna eta kohesioa sendotzeko.

Hezkuntza Legeak eta Plan Estrategikoak proposatzen duten ikuspegi eraldatzaile horretan, ezinbestekoa da demokrazia eta parte-hartze demokratikoa ikastetxeen hezkuntza-jardueran modu koherente eta sistematikoan txertatzea. Ikastetxeak herritartasun aktiboa, pentsamendu kritikoa, elkarbizitza demokratikoa eta ardura partekatua garatzeko guneak dira.

Ikasleek benetako parte-hartze esperientziak bizitzeko aukerak behar dituzte: hausnarketa, erabakiak hartzeko espazioak, arduren banaketa eta komunitatearekiko konpromisoa. Parte-hartzea ikastetxeko kultura pedagogikoaren zutabe bat da, ikasleak gizarte bidezkoago, inklusiboago eta kohesionatuago baten eraikuntzan subjektu aktibo bihurtzen dituen.



Plan Estrategikoa: IHParen erreferentzia nagusia

Plan Estrategikoa funtsezko tresna da ikastetxe publikoek Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua (aurrerantzean IHP) eguneratzeko, izan ere, Plan Estrategikoak koherentzia eman nahi dio euskal eskola publiko osoari, bakoitzaren testuinguruen eta beharren aniztasuna ahaztu gabe.

Hortaz, IHP bakoitzak bere ikastetxearen autonomiatik eta testuingurutik abiatuta ezarriko ditu ikastetxe bakoitzaren Hezkuntza Proiektuaren helburu partekatuak. Horrela, IHParen erreferentzia nagusia Euskal Eskola Publikoa Eraldatzeko I. Plan Estrategikoa izango da, hezkuntza publiko osoaren ikuspegi integral eta identitatearen esparru bateratu gisa. Eta, bere lau dimentsio eta hamar ardatz estrategikoen bidez, ikastetxeen jardun pedagogiko eta antolakuntza-praktikak berriro pentsatzeko eta sistema osoaren erronka partekatuekin lerrokatzeko bidea irekitzen du.

Curriculum zehaztapenak Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan (IHPan) curriculum zehaztapenak integratuko dira 77/2023 Oinarrizko Hezkuntzaren Dekretuak ezarritakoaren arabera. IHPak zehaztuko du nola garatzen den ikaskuntza konpetentzialaren ikuspegia eta zein printzipio pedagogikok gidatuko duten ikastetxeko ikaskuntza.

Ikastetxeko irakasleen klaustroak finkatu eta onartuko du Curriculuma zehazteko modua. Horien bidez, ikastetxe bakoitzak bere ikuspegi pedagogikoa eta antolaketa-egitura lotuko ditu curriculumaren garapenarekin, ikasleen beharrei eta ingurune soziolinguistikoari egokituta. Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan, curriculum ofizialari jarraituz, herritartasun aktiboa sustatzeko konpetentziak, ikaskuntzak bultzatzeko helburuak eta metodologiak txertatuko dira.

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren onarpena eta argitalpena

Ikastetxeetan, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua onartzeko ardura, Eskola Kontseiluari dagokio.

Eskola Kontseiluak dokumentua baliozkotu ondoren publikoki eskuragarri jarriko du, ikastetxearen identitatea, balioak eta hezkuntza-norabidea gardentasunez partekatzeko hezkuntza komunitate osoarekin.

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua (IHP)

ZER DA, IHP, IKASTETXEKO
HEZKUNTZA PROIEKTUA?

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua (IHP)
ikastetxe guztiek izan behar duten dokumentu ofizial, estrategiko eta integrala da. Ikastetxeak bere autonomia baliatuz egiten duen proposamen orokorra, eta bertan jasotzen dira hezkuntza-aukera, printzipioak, helburu nagusiak. Dokumentu honek komunitate osoaren jarduera gidatzen du ikastetxearen estrategia orokorrari norabidea eta zentzua emanez.

Hortaz, IHPa eskola-komunitatea osatzen duten pertsonen arteko elkargunea izango da, eta guztien artean, hezkuntza-jarduerak oinarri izango dituen konpromiso eta helburuak adostuko dituzte.

IHParen ezaugarriak

IHPak HONAKO EZAUGARRIK IZANGO DITU:

Adostua:

Modu parte-hartzailean eta demokratikoan sortu dena.

Ikastetxearen autonomia gauzatzen duen tresna:

Helburuak, balioak eta estrategia pedagogikoak lortzeko antolaketa-egitura zehazten dituen.

Publikoa eta irekia:

Hezkuntza komunitate eragile guztien eskura egongo dena.

Lanerako erreferentea:

Ikasleen beharrei erantzun bateratua ematen lagunduko duena.

Arau-markoan oinarrituta:


Hezkuntza administrazioak Euskal Hezkuntza sistemarako zehaztutako marko teorikoarekin bat egin behar duena.

Berrikusteko eta eguneratzeko modukoa:

IHPa epe luzekoa izatea bada helburua, beharrezkoa da dokumentua berrikusteko eta eguneratzeko modua planifikatzea.

Errealista:

Ikastetxea eta testuingurua lotzen dituen errealitatean oinarritzen dena.



IHP: ikastetxeko dokumentuen arteko lotura

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua (IHP) da ikastetxearen jardura osoaren oinarri eta erreferentzia nagusia. IHPa oinarri hartuta, eraikiko dira ikastetxeko gainerako dokumentu guztiak, eta horien artean koherentzia eta elkarrekiko lotura bermatzea ezinbestekoa da. Hortaz, IHPa ikastetxearen antolaketa, kudeaketa eta jardura pedagogikoa gidatuko duen ardatza izango da.

Ikastetxeko dokumentuak eta IHParen arteko lotura:

DOKUMENTUA	FUNTZIO NAGUSIA	IHP-AREKIKO LOTURA
Zuzendaritza Proiektua (ZP)	Zuzendaritza-taldearen agintaldirako (4 urte) dokumentu estrategikoa.	IHPa garatzen du zuzendaritza-aldiaren helburu zehatzetan. IHParen lerro estrategikoak eta lehentasunak zehazten ditu.
Antolaketa eta Jarduera Araudia (AJA)	Antolaketa, funtzionamendua eta bizikidetza arautzen ditu.	Derrigorrezko eta loteslea den dokumentua, IHPko printzipioekin bat datorrena.
Ikastetxeko Urteko Plana eta Urteko Memoria (IUP-IUM)	Ikasturte bakoitzeko jardueren plangintza, antolaketa eta ebaluazioa.	IHParekin eta Ikasturte Hasierako Ebazpenarekin lerrotatuta egon behar dute, haren helburu estrategikoekin koherentziaz.
Hizkuntza Proiektua	Hizkuntzen irakaskuntza, ikaskuntza eta erabileraren irizpideak eta estrategiak ezartzen ditu.	IHPan zehaztutako hizkuntza- eta komunikazio-helburuak garatzen eta zehazten ditu.
Bizikidetza Plana	Bizikidetza positiboa eta prebentzioa sustatzen du, errespetuan, inklusioan, berdintasunean eta komunitate osoaren parte-hartzean oinarrituta.	IHPko balioekin koherentea; bertan jasotako bizikidetzari buruzko lerro estrategikoak praktikan jartzen ditu.
Aniztasunari Arreta Emateko Plana	Ikasle guztien beharrianetara egokitutako hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa bermatzen du.	Ikastetxeko IHPan jasotako ekitate eta inklusioari buruzko helburuak garatzen ditu.
Hezkidetza Plana	Berdintasuna eta sexu, identitate edo orientazioagatiko edozein diskriminazio edo indarkeriaren prebentzioa sustatzen du.	IHPan jasotako berdintasun- eta hezkidetza-printzipioen isla da.
Tutoretza eta Orientazio Plana	Teknologia digitalen erabilera pedagogiko, antolakuntzazko eta arduratsua, eta hezkuntza-komunitate osoaren gaitasun digitalaren garapena.	IHPko digitalizazio- eta jasangarritasun-helburuekin lerrotatuta dago.
Ikastetxeko Digitalizazio Plana	Teknologia digitalen erabilera pedagogiko, antolakuntzazko eta arduratsua, eta hezkuntza-komunitate osoaren gaitasun digitalaren garapena.	IHPko digitalizazio- eta jasangarritasun-helburuekin lerrotatuta dago.
Kudeaketa Plana (KP)	Baliabideen banaketa eta hobekuntza-prozesuak.	IHPko kudeaketa-irizpideekin eta kontratu-programarekin lerrotatuta.


Prozesu parte-hartzailea



②

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua (IHP) prozesu parte-hartzaile, kolektibo eta testuinguratu baten emaitza izan behar da. Komunitate osoaren —irakasleak, familiak, ikasleak eta gainerako eragileak— parte-hartzea eta inplikazioa ezinbestekoak dira ikastetxearen etorkizuna eraikitzeko. Elkarrekin egindako lanak pertinentzia eta konfiantza sentimendua indartzen ditu, eta hezkuntza-komunitate osoak bere egiten du proiektua.



Proiektu partekatua eraikitzeko bide hau jarraitu daiteke:





**KOMUNIKAZIOA
DISEINATU**

**PARTE-HARTZEA
ERAIKI**

**KRONOGRAMA
SORTU**

**EGOERA
AZTERTU**

**NOSTASUNA
SORTU**

**HELBURUAK
ZEHAZTU**

Prozesuaren diseinua: planifikazio eta garapen fasea

—

BI BIDE IHPa GAUZATZEKO

1. Talde eragilea sortzea

Ikastetxe bakoitzak Talde Eragilea osatuko du IHP prozesua gidatu eta koordinatzeko. Talde honek hezkuntza-komunitateko estamentu guztiak ordezkatzeko ditu (zuzendaritza, irakasleak, familiak, ikasleak, ez-irakasleak... Zeregin nagusiak:

- Prozesu osoa planifikatu, dinamizatu eta gainbegiratu.
- Lan-taldeak koordinatu eta informazioa trukatzeko bideak bermatu.
- Hezkuntza-komunitateari proposamenak aurkeztu eta adostasunak bilatu.
- Planteatzen diren urratsak emateko baliabideak kudeatu.
- Hausnartze eta erabakitze prozesua zuzendu.
- Emaizak sistematizatu eta IHParen zirriborroa aurkeztu.

 Ikus T.O.1 taula: Talde Eragilea

2. Komunikazio-prozesua

Komunikazioa da parte-hartze arrakastatsuen giltza. Talde Eragileak komunikazio-plan bat diseinatuko du eta hezkuntza komunitateari komunikatuko zaio, barne eta kanpo komunikazioak integratuta. Edukiak:

- Zer eta zertarako komunikatuko den.
- Nork, nori eta zein unean egingo duen.
- Erabiliko diren kanal eta formatuak (bilera, buletin, webgune, sare sozialak...).

Helburua da informazioa argi, garaiz eta modu irekian partekatzea.

 Ikus T.O.2 taula: Komunikazio-prozesua

3. Parte-hartze prozesua

IHParen zilegitasuna bermatzeko, komunitate osoaren parte-hartzea beharrezkoa da. Prozesua irekia, inklusiboa eta adostasunera bideratua izan behar da. Printzipioak:

- Estamentu guztien ordezkaritza eta ahotsa bermatzea.
- Iritzi eta ikuspegi desberdinak jasotzea.
- Parte-hartzea modu jarraituan mantentzea (ez une jakin batzuetan soilik).

Talde Eragileak dinamizatu eta koordinatuko du prozesua, eta komunitatearen inplikazioa etengabe sustatuko du, proiektua guztiona izan dadin.

 Ikus T.O.3 taula: Parte-hartze prozesua

4. Kronograma

Prozesu osoaren denbora-plangintza egitea gomendatzen da, IHP garatzeko fase eta epeak modu argian ikustarazteko. Kronogramak ikastetxearen erritmoari eta testuinguruari egokituta egon behar du.

 Ikus T.O.4 taula: Kronograma

GARAPEN FASEA

1. Testuinguruaren analisisa

IHP eguneratu edo berritzeko lehen urratsa da ikastetxearen egoeraren diagnosia egitea. Horretarako, Talde Eragileak barneko eta kanpoko faktore nagusiak aztertuko ditu: komunitatearen beharrak, emaitzak, baliabideak eta ingurune soziala. Helburua: ikastetxearen errealitatetik abiatutako helburu eta estrategiak finkatzea.

 Ikus T.O.5 taula: Egungo markoaren berrikuspena

2. Barne-analisisa

Barne-analisan ikastetxearen jarduera eta baliabideen egoera aztertzen da:

- Kudeaketa eta antolaketa.
- Irakasle, ikasle eta familien beharrak.
- Emaitza akademiko eta sozioemozionalak.
- Azpiegiturak eta baliabide teknologikoak.

 Ikus T.O.6 taula: Barne-analisisa

3. Kanpo-analisisa

Kanpo-analisan ikastetxearen inguruko faktoreak aztertzen dira:


- Hezkuntza Sailaren ildo estrategikoak.
- Udalerriko eta eskualdeko errealitatea.
- Arau-aldaketak, jaiotze-tasak, inguruko ikastetxeen egoera.

 Ikus T.O.7 eta  T.O.8 taulak: Kanpo-analisisa eta eragina

4. Diagnosia eta ondorioak

Barne eta kanpo azterketaren emaitzak bildu ondoren, alderdi positiboak eta hobetzeko aukerak identifikatzen dira. Hortik abiatuta, ondorio nagusiak eta hobekuntza-proposamenak zehaztuko dira, hurrengo IHParen oinarri izango direnak.

 Ikus T.O.9 eta  T.O.10 taulak: Diagnosia eta hobekuntza-proposamenak



Ikastetxearen nortasunaren diseinua: misioa, bisioa, balioak eta asmoa

—

NOLA ERATU IKASTETXEAREN NORTASUNA?

1. Misioa

Ikastetxearen egitekoa, ikastetxearen beraren izateko arrazoia da: zertarako dagoen, ikasleei eta komunitateari zer ekarpen egin nahi dien, eta zein diren bere hezkuntza- eta gizarte-helburu nagusiak adierazten du.

 Ikus T.O.11 taula: Misioa

2. Bisioa

Ikastetxeak zer izan nahi duen eta nora iritsi nahi duen adierazten du. Epe ertain eta luzerako ikuspegia da, eta norabidea ematen dio plangintza estrategikoari. Bisioak etorkizuneko irudia irudikatzen du: ikasleen, komunitatearen eta gizartearen beharrei erantzuteko eskola eredua zein izan nahi duen.

 Ikus T.O.12 taula: Bisioa

3. Balioak

Ikastetxearen jarduera, harreman eta erabakietan gidari diren printzipio etiko eta pedagogikoak dira. Balioek hezkuntza-komunitate osoari zentzua eta batasuna ematen diote, eta eguneroko jardunean islatu behar dira.

Balioak dira ikastetxearen kultura pedagogikoaren oinarriak eta ikasleen heziketa integralerako erreferente nagusiak.

 Ikus T.O.13 taula: Balioak

4. Asmoa

Asmoa da eskola batek bere jardun pedagogikoaren bidez lortu nahi duen helburu nagusia. Ikastetxe publiko gisa, asmoak hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatu behar du, ikasleen garapen integrala eta aukera-berdintasuna sustatuz. Asmoak IHParen ikuspegi orokorrari norabide praktikoa ematen dio.

 Ikus T.O.14 taula: Asmoa

5. IHParen helburuak zehaztea

Misioa, bisioa, balioak eta asmoa adostu ondoren, ikastetxeak hezkuntza-helburu nagusiak zehaztuko ditu. Helburu horiek izango dira IHParen ardatz eta orientabide nagusia, eta Euskal Eskola Publikoa Eraldatzeko I. Plan Estrategikoarekin lerrokatuta egon beharko dira, betiere ikastetxearen testuingurua eta komunitatearen errealitatea oinarri hartuta.

 Ikus T.O.15 taula: IHP helburuak

Helburuen ezaugarri nagusiak:

- Misio, bisio, balio eta asmoarekin bateragarriak izango dira.
- Ikastetxeko gainerako dokumentuen (Digitalizazio Plana, programazioak...) erreferente izango dira.
- Ikastetxearen jarduera-eremu guztiak hartuko dituzte ikuspegi integratzaile eta hezkidetzaillearekin.
- Indarreko legedira egokituta.
- Etapetan ezarritako helburuekin bat etorriko dira, ikasleen garapen integrala, aukera-berdintasuna eta bizikidetzaren demokratikoa sustatzeko.

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren dimentsioak eta ardatzak

③

Ikastetxeko Hekuntza Proiektua lau dimentsio eta hamar ardatz nagusitan banatzen da:



ERANTZUKIDETASUNA

1. Ardatza: Lidergo Pedagogiko partekatua
2. Ardatza: Hezkuntza-komunitateak eta lankidetzak-sareak



HEZKUNTZA BIKAITASUNA ETA IKASLEEN ARRAKASTA

3. Ardatza: Euskara, eleaniztasuna eta kultura-aniztasuna
4. Ardatza: Irakatsi eta ikasteko prozesua
5. Ardatza: Irakasleak eraldaketa prozesuaren ardatz gisa



EKITATEA ETA GIZARTE-KOHESIOA

6. Ardatza: Ekitatea eta inklusioa
7. Ardatza: Bizikidetzak, hezkidetzak eta ongizate sozioemozionala
5. Ardatza: Irakasleak eraldaketa prozesuaren ardatz gisa



ETENGABEKO HOBEKUNTZA ETA IRAUNKORTASUNA

8. Ardatza: Digitalizazioa eta jasangarritasuna
9. Ardatza: Nazioartekotzea
10. Ardatza: Ebaluazioaren eta berrikuntzaren kultura





Erantzukide- tasuna

Erantzukidetasunak esan nahi du Euskal Eskola Publikoa eraldatzea ahalegin partekatua dela administrazioaren, zuzendaritza-taldearen, irakasleen, ikasleen, familien eta inguruko eragilearen artean. Gakoa da lidergo pedagogiko partekatua artikulatzea eta lankidetzaren sareak indartzea, ikastetxe bakoitzak aurrera egin dezan.

1. Ardatza: Lidergo pedagogiko partekatua

Ikastetxeko zuzendaritzaren eta hezkuntza-komunitate osoaren artean lidergo partekatua garatzea, ikasleen arrakasta, ikastetxearen kohesioa eta hezkuntza-jardunaren kalitatea bultzatuz.

Lidergoa ez da zuzendaritza-taldearen ardura bakarrik; komunitate osoak konpartitzen duen ikuspegia eta konpromisoa izan behar du.

Zuzendaritzari dagokio ikastetxeko baliabideak eta prozesuak kudeatzea eta ikaskuntza arrakasta bilatzen duen proiektu kolektibo zirrargarria sustatzea. Bere egitekoa da ikastetxearen plangintza estrategikoa testuingurura egokitzea eta IHPan zehaztutako norabidearekin bat etortzea.

Lidergo pedagogikoak hezkuntza-komunitate osoa bideratu behar du hezkuntza-proiektuaren inguruan, adostasunetan eta lankidetzan oinarrituta.

Antolaketa eta kudeaketa pedagogikoaren irizpide partekatuak finkatzea.

Ikastetxearen eguneroko funtzionamenduak giro ordenatua, errespetuzkoa eta parte-hartzailea bultzatu behar du.

Horretarako, beharrezkoa da irizpide pedagogiko komunak eta antolaketa-egitura argia ezartzea.

Ikastetxeetan taldeak eta ardura-banaketa eraginkortasunez antolatzea funtsezkoa da hezkuntza-prozesuaren ekitatea, inklusioa eta kalitatea bermatzeko. Ikasgelako taldeak osatzerakoan, oreka bilatu behar da ikasleen ezaugarri akademiko, kultural eta behar berezien arabera, harreman sozio-emozionalak sustatuz eta heterogeneotasuna bultzatuz. Taldeen egonkortasunak eta ikasle kopuruaren egokitzapenak kohesioa indartzen lagundu behar dute.

Bestalde, tutoretzen banaketan, ikastetxearen beharrak eta irakasleen gaitasunak kontuan hartu behar dira, esperientzia, formazioa, lan-karga eta familiekin harremana bezalako irizpideak aintzat hartuz. Horrez gain, koordinazio pedagogikoa ezinbestekoa da hezkuntza-proiektuaren koherentzia eta kalitatea bermatzeko; horretarako, antolaketa-beharrak, maiztasuna, helburuak eta garapenerako erabakiak modu egituratuan definitu behar dira.

Antolamenduaren ardatzak:

- Gobernu-organoen eta lan-taldeen egitura argia (zuzendaritza-taldea, klaustroa, Eskola Kontseilua...).
- Taldeen osaera orekatua eta tutoretza-banaketa egokia.
- Denboren eta espazioen erabilera eraginkorra.
- Koordinazio egituratu eta iraunkorra: maiztasunak, ardurak eta komunikazio-bideak zehaztuta.

Kudeaketa partekatua eta erantzukidetasuna Ikastetxearen kudeaketa kalitatea, ekitatea eta etengabeko hobekuntza bermatzera bideratu behar da. Horretarako, talde-lanaren kultura sendoa eta erantzukidetasunean oinarritutako jarduna behar dira.

Funtsezko ideiak:

- Arduren banaketa orekatu eta argia.
- Kudeaketa partekatua, konfiantzan eta lankidetzan oinarritua.
- Prozesuen bidezko kudeaketa.
- Kudeaketa aurreratua
- Langileen parte-hartze aktiboa eta aintzatespena.

Zuzendaritza-taldeen lidergo pedagogikoa indartzea

Lidergo partekatua erabakiak eta erantzukizunak modu kolektiboan kudeatzeko eredu da, non hezkuntza-komunitateko kide guztiek parte hartzen duten. Eredu honek lankidetzatza, parte-hartze demokratikoa eta berrikuntza sustatzen ditu, ezagutza eta esperientziak partekatuz.

Pertsonen talentu eta gaitasunen arabera erantzukizunak banatzeak motibazioa, konfiantza eta pertinentzia sentimendua indartzen ditu, komunitate bateratuagoa eta etengabeko hobekuntzarekin konprometituagoa eraikiz

Eredu honek lortzen du:

- Irakasleen garapen profesionala eta talde-lana sustatzea.
- Ikasleen parte-hartzea eta inklusioa indartzea.
- Familien inplikazioa eta ikastetxearen inguruko konfiantza handitzea.

Zuzendaritza-taldeen trantsizioa

Lidergoaren egonkortasuna funtsezkoa da proiektuaren koherentzia eta jarraipena bermatzeko.

Horregatik, ikastetxeek aurreikusi behar dute zuzendaritza-talde trantsizioaren planifikazioa, ezagutza eta esperientzia modu mailakatuan transmititzeko.

Kontuan hartzekoak:

- Ordezkapen progresiboa planifikatzea.
- Zuzendaritzen arteko trantsizioak egitea.
- Errelebo egituratu eta gardena, etenik gabea eta koordinatua izatea.
- Helburua da lidergoaren eta hezkuntza-proiektuaren jarraikortasuna bermatzea eta komunitatearen konfiantza sendotzea.

2. Ardatza: Hezkuntza-komunitatea eta lankidetzatza-sareak

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak komunitatearekiko eta ingurunearekiko lankidetzatza aktiboa sustatu behar du. Helburua da hezkuntza-komunitatea dinamikoa, parte-hartzailea eta erantzukidea izatea, eta, aldi berean, tokiko erakundeekin eta sareekin elkarlanean aritzea, hezkuntza inklusibo eta jasangarria bultzatzeko.

Hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea

Hezkuntza-komunitatearen inplikazioa funtsezkoa da eskola bizia eta konprometitua eraikitzeke. Ikastetxeek komunitateko kideen ahotsa eta ikuspegia txertatu behar dituzte IHParen diseinuan, garapenean eta ebaluazioan.

Kontuan hartzekoak:

1. Ezagutza eta inplikazioa: Komunitateko kideek IHP ezagutzen dute eta haren diseinu-prozesuan parte hartzen dute (bilerak, tailerrak, lantaldeak...).
2. Parte-hartze egituratua: Komunitateko iritzi eta proposamenak jasotzeko bideak sistematizatuta daude (inkestak, eztabaida-foroak, talde dinamikoak...).
3. Ebaluazio parte-hartzailea: IHParen garapenean inguruko hausnarketa kolektiboak egiten dira, hobekuntza eta egokitzapena bultzatzeko.
4. Eguneratze irekia: Komunitatearen ekarpenak txertatzen dira, IHP dokumentu bizia eta eguneratua izan dadin.

Ikastetxeek funtsezkoa dute familiekin komunikazio eta lankidetzatza eraginkorra garatzea, ikasleen inplikazioa eta hezkuntza-komunitatearen kohesioa sustatzeko. Horretarako, kontuan hartu beharko lirateke:

 Ikus G.O.1 Lidergo pedagogiko partekatua

1. Ezagutza eta gardentasuna: Familiek IHP, Zuzendaritza Proiektua eta ikastetxeko proiektu zein protokoloak ezagutzen dituzte, horretarako, azalpen-bilerak, gidak... erabiltzen dira.
2. Komunikazio eta parte-hartze kanalak: Eskola-kontseiluaz gain, espazio ireki eta jarraituak eskaintzen dira iritziak eta proposamenak partekatzeko.
3. Entzute-prozesu eraginkorrak: Inkestak eta bilerak erabil daitezke, baina informazioaren itzulera eta gardentasuna bermatuz.
4. Parte-hartze inklusiboa: Ordutegi malguak eta hizkuntza ulergarria erabiliz, familia guztien parte-hartzea errazten da.
5. Aniztasuna eta zaurgarritasuna kontuan hartzea: Itzultzaileak, kultura-bitartekariak eta jarduera kultur-anitzak baliatzea, elkar-ulermena eta parte-hartze osoa sustatzeko.
6. Gobernantza partekatuan parte-hartzea: Eskola Kontseiluan familien ordezkaritza bermatzea eta egitura hori dinamikoa izatea.

Ikastetxeen arteko sareak

- Sare publikoko ikastetxeen artean babes eta kolaborazio kultura sendotzea.
- Jardunbide egokiak eta esperientziak partekatzea zuzendaritza- eta irakasle-taldeetan topaketetan.
- Hezkuntza Saila, unibertsitateak eta ikastetxeak elkarlanean aritzea, prestakuntza eta ikerketa pedagogikoa indartzeko.

 Ikus G.O.2 taula: Hezkuntza-komunitatea eta lankidetzak

Lankidetzak

Ikastetxeek behar dute lankidetzak-esparru sendoa bai tokiko administrazioekin eta erakundeekin, bai beste ikastetxe eta hezkuntza-eragileekin. Helburua da komunitate-ikuspegi integrala eta erantzukizun partekatua sustatzea.

Tokiko erakundeekin lankidetzak

- Udal, gizarte, osasun eta enplegu arloko erakundeekin koordinazioa sendotzea, hezkuntza-erantzun integralagoa emateko.
- Hezkuntzako udal-kontseiluetan parte hartzea, baliabideen sinergiak eta proiektu bateratuak sustatuz.
- Aisialdi, kirol eta kultur eragileekin harreman iraunkorrak izatea, eskola-orduz kanpoko ikaskuntza-aukerak aprobetxatzeko.
- Kultura arteko bitartekaritza sustatzen duten tokiko programetan parte hartzea, familien lankidetzak aberasteko.



Hezkuntza bikaintasuna eta ikasleen arrakasta

Dimentsio honek ikasleen garapen integrala du ardatz, hezkuntza-bikaintasuna eta aukera-berdintasuna uztartuz. Euskara eta hizkuntzen trataera integratua oinarri hartuta, eleaniztasuna eta kulturaliztasuna aberastasun gisa ulertzen dira. Irakatsi eta ikasteko prozesuek ikasleen autonomia, pentsamendu kritikoa eta konpetentzia globalak sustatzen dituzte. Horretarako, irakasleak dira eraldaketaren ardatz nagusiak, beren jardun profesionalaren bidez ikaskuntza-esperientzia berritzaile eta inklusiboak gidatuz.

3. Ardatza: Euskara, eleaniztasuna eta kultura-aniztasuna

Hizkuntzen trataera. Euskararen garapena

Euskal hezkuntza sistema eleaniztuna da, euskara ardatz nagusia duena. Bi hizkuntza ofizial ditugu, eta horietako bat, berezko hizkuntza dena, minorizazio egoeran dago. Biak ala biak irakatsi behar dizkiegu gure ikasle guztiei, haien ibilbide akademikoaren bukaeran konpetentzia maila bera lor dezaten, Hezkuntza Legearen 67. artikuluan eta curriculum dekretuetako irteera profiletan zehazten den bezala. Gainera, gutxienez atzerriko hizkuntza batean ere komunikatzeko konpetentean izan behar dute ikasleek, eta etxetik ekarri ahal dituzten beste hizkuntza eta kulturak ere kontuan izan eta balioetsi behar ditugu.

Hortaz, asmo handiko hizkuntza helburu eta erronkak dituzte gure ikastetxeek, eta garrantzitsua da helburu eta erronka horiek egoki erantzuteko Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak (IHP) gai honi buruzko erabakiak jasotzea.

Beraz, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak jaso egin behar ditu hizkuntzen trataerari buruz ikastetxean adostutako helburu, irizpide eta erabaki nagusiak, ikasle guztiek haien Hizkuntza Komunikaziorako Konpetentzia eta Konpetentzia Eleaniztuna garatu eta legeak ezartzen dituen hizkuntza helburuak lor ditzaten. Helburu, irizpide eta erabaki nagusi horiek modu labur eta orokorrean formulatuko dira Hezkuntza Proiektuan, eta garatu eta zehaztuko dira Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuan.

Euskal Eskola Publikoa eraldatzeko I. Plan Estrategikoak adierazten duen bezala, ikastetxeak bere testuingurura eta errealitate soziolinguistikora egokitutako Hizkuntza Proiektua egin behar du.

Zer da?

Hizkuntza Proiektua da ikastetxeek duten dokumentu eta tresnarik eraginkorrena Hezkuntza Proiektutik eratortzen diren

hizkuntza-helburu –asmo eta –nahi orokorrak zehaztu eta garatzeko. Hizkuntza Proiektuak dokumentu adostua, loteslea, bizia eta ebaluagarria izan behar du, eta egokitua ikastetxearen errealitate soziolinguistikora. Bertan adierazi behar dira zeintzuk diren ikastetxearen irizpide eta erabaki didaktiko-metodologikoak hizkuntza guztiak irakasteko, hizkuntzen trataera integral eta integratua jasoz, euskara ardatz izanik, konpetentzia eleaniztuna lortzeko helburuarekin eta noski ikasleen emaitzak kontuan hartuz. Alderdi didaktiko-metodologikoaz gain, ikastetxearen antolamendu eta harremanen alderdiei erreparatu behar die, zehazteko hizkuntza bakoitzak zer toki izango duen ikastetxearen eguneroko funtzionamenduan, bai idatzizko jardunean, baita ahozkoan ere.

Zertarako balio du?

Hizkuntza Proiektuak badu helburu nagusi bat: ikastetxeak bide-orri adostu eta zehatza zehaztea, hizkuntzak irakasteko eta erabiltzeko estrategia eraginkorrak inplementatzeko. Horrela, bide-orri horren garapenaren bidez, ikasleek Hizkuntza Komunikaziorako Konpetentzia eta Konpetentzia Eleaniztuna eskuratzea nahi da. Besteak beste, ikastetxearen Hizkuntza Proiektuak honako alderdi hauei buruzko gogoeta egin, irizpideak ezarri eta erabakiak hartu behar ditu:

- Hizkuntzen trataera integratu eta integrala.
- Hizkuntzak irakasteko metodologia eraginkorrak, elkarrekintzan oinarrituta.
- Ikasle etorri berriei hizkuntza-arreta.
- Euskararekiko atxikimendua, euskal kulturaren, hezkuntza soziolinguistikokoaren eta motibazioaren bidez.
- Euskararen erabilera sustatzeko neurriak, eskola barne zein eskolaz kanpo.
- Hizkuntza eta Kultura guztiak errespetatu eta balioesteko estrategiak.
- Ikastetxearen antolamendu eta harremanetarako hizkuntza-irizpideak, idatzizkoak zein ahozkoak.

 Ikus G.O.3 taula. Hizkuntzen trataera

4. Ardatza: Irakatsi eta ikasteko prozesua

CURRICULUM ZEHAZTAPENAK

Atal honetan landuko diren elementuen helburua da IHP koherente eta testuingurura egokitua diseinatzea, ikasleen beharrezkoak erantzuteko eta XXI. mendeko erronkei aurre egiteko prestatzeko, Hezkuntza ibilbidea osatzen duten etapa guztietan. Horretarako, irteera-profila da (Oinarrizko Hezkuntzan eta Batxilergoan) ibilbidearen hasiera eta amaiera, iparra eta helmuga. Ibilbide horretan ikasleen ebaluazioak paper erabakigarria betetzen du, ikasleen ikaskuntza-prozesua planifikatu, etengabe aztertu eta hobetzeko aukera ematen baitu.

Irteera-profila

Irteera-profilaren ibilbidea diseinatzerakoan koherentzia jardun behar dugu Euskal Eskola Publikoa Eraldatzeko I. Plan Estrategikoarekin. Diseinu horrek metodologia aktibo eta inklusiboetan izan behar du oinarria, ikaskuntza esanguratsua eta konpetentziala bultzatuz.

▪ Zer da?

Irteera-profila Oinarrizko Hezkuntzaren eta Batxilergoaren amaieran ikasleek eskuratu beharreko funtsezko konpetentzien multzoa da. Eskuratu beharreko irteera-profila bakarra da eta komuna ikastetxe guztietarako, eta deskriptore operatibo bidez zehaztu eta mailakatzen da. Beraz, ikastetxeek, beraien autonomiaren baitan, irteera-profila eskuratzeko beraien testuinguruari ahalik eta hobekien egokitutako bidea diseinatu beharko dute.

▪ Zertarako balio du?

Ikasleek XXI. mendeko erronkei aurre egiteko beharrezkoak diren zortzi funtsezko konpetentziak garatzeko. Era berean, garrantzitsua da ikastetxean irteera-profilari erantzuteko egiten den curriculum zehaztapenen antolaketa, ikastetxearen errealitatek eta testuingurutik ahalik eta gertuen egotea, ikas-komunitatearentzako ahalik eta esanguratsuen izan dadin.

▪ Nola eraman aurrera?

Ikastetxe bakoitzak bere testuingurua eta identitatea kontuan hartuta egokitzen du komuna den irteera-profila. Zeharkakotasuna funtsezkoa da: arlo, jakintza-gai eta eremu guztiek irteera-profilaren lorpena elikatzen dute. Hortaz, Irteera-profilaren garapena metodologia aktibo eta inklusiboetan oinarrituko da, ikaskuntza konpetentzian eta esanguratsuan.

 Ikus T.O. 16. Irteera-profila

Ikasleen ebaluazioa eta promozio erabakiak

Euskal Eskola Publikoa Eraldatzeko I. Plan Estrategikoan jasotzen den bezala, ebaluazio eta promozio erabakiek konpromisoa islatu behar dute ebaluazioaren kultura errotzeko. Ebaluazioak izaera integrala, jarraitua eta konpetentziala izan behar du, etengabeko hobekuntzarako tresna gisa ulertuta, eta ikasleek beren ikaskuntza-prozesuaren gaineko gogoeta kritikoa egin dezaten.

Ebaluazio eta promozio erabakiak atala IHParen arrakastarako gakoa da, ikaskuntza-prozesua planifikatu, jarraitu eta hobetzeko tresna nagusitzat ulertzen da. Ebaluazioak helburu argiak izan behar ditu, eta irizpide eta erabaki adostuen bidez garatu behar da. Promozio erabakiak, berriz, ikasleen ikaskuntza-emaitzen balorazioarekin eta kalifikazioarekin lotuta daude, eta beti

indarrean dagoen araudia kontuan hartu behar da (75/76/77 Dekretuak eta 2024ko urtarrilaren 22ko Ebaluazio Agindua)

Ebaluazioak, hezkuntza-prozesuaren funtsezko osagai gisa, hiru esparruei egiten die erreferentzia: irakaskuntza-praktikari, familien parte-hartzeari eta ikasleen ebaluazioari berari.

Ondoren, IHP mailan hartu beharreko erabakiak aztertuko dira, ebaluazioa ikuspegi konpetentzian garatzeko:

Ebaluazioa

Gaur egungo hezkuntza-sistemak konpetentzien garapenean jartzen du arreta, hau da, oinarritzko jakintzak eskuratzeari harago, jakintza horiek egoera praktikoa edo errealan aplikatzeko gaitasuna garatzean oinarritzen da. Ideia horietatik abiatuta ebaluazio konpetentzian hezteko hainbat alderdi izan behar ditu kontuan:

A — Ebaluazio prozesu jarraitua:

- Ikaskuntzaren bilakaera etengabe dokumentatzen du, ebidentzia anitzetan oinarrituta.
- Helburua: zailtasunak garaiz hauteman eta egokitzapen didaktikoak ezartzea.

B — Konpetentzien araberako ebaluazioa:

- Ikasleak egoera konplexuei nola erantzuten dien neurtzen du.
- Ez da nahikoa oinarritzko jakintzen memorizazioarekin, irakasleek testuinguru erreal edo praktikotik aplikatzeko aukera eman behar diete ikasleei eta ikaskuntza esanguratsua bihurtu.

C — Ebaluazioaren funtzio hezigarria eta hezitzailea:

- Ebaluazio Hezitzailea (Formativa): irakasleek egiten duten prozesu jarraitua ikasleei atzeraelikadura emateko eta haien ikaskuntza prozesua hobetzeko eta autonomia eta autorregulazioa bultzatzeko. autonomia eta autorregulazioa bultzatzeko.

- Ebaluazio Hezigarria (Formadora): ikasleei beren indarguneak eta ahulguneak identifikatzeko aukera ematen die eta haien ikaskuntza-prozesuan parte-hartzea aktiboa sustatzen du. Horri esker, ikasle kritiko eta gogoetatsua bultzatzen da.
- Bi ebaluazio mota hauek elkarlanean aritzen dira ikaskuntza-prozesua hobetzeko.

D — Ebaluazioaren pertsonalizazioa:

- Erritmo eta ezaugarri indibidualetara egokitzen da; aldamaie pedagogikoa eskaintzen du.
- Ebaluazioa pertsonalizatzean ikasle bakoitzaren zailtasunak eta aurrerapenak modu zehatzean identifikatzeko aukera ematen du, eta, ondorioz, hezkuntza indartzeko neurriak ezar daitezke, guztien arrakasta ahalbidetu eta, horrek, hezkuntza-ekitatea sustatzen du.

E — Atzeraelikadura, transferentzia eta metakognizioa:

- Atzeraelikadura: ikaskuntzaren etengabeko hobekuntza sustatzen du; autorregulazioa eta ikasle-irakasleen arteko elkarriketa pedagogikoak bultzatzen ditu.
- Transferentzia: ikasitakoa testuinguru berrietara eramateko gaitasuna garatzeko balio dute.
- Metakognizioa: ikasleei beren ikaskuntza-prozesuaren kontzientzia hartzeko, hura planifikatzeko, monitorizatzeko eta ebaluatzeko aukera ematen die. Ikaskuntza autonomia eta autorregulazioa indartzen du.

F — Ebaluazioa: Hasierakoa-jarraia-amaierako:

- Hasierakoa: abiapuntua/diagnostikoa, plangintza egokitzeko.
- Jarraia: prozesuaren jarraipena eta doikuntzak egiteko
- Amaierakoa: lortutako konpetentzien egiaztapena eta balorazioa.

G-Curriculum-antolaketako elementuak ardatz:

- Irteera-profila, deskriptore operatiboak, funtsezko konpetentziak, konpetentzia espezifikoak, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak dira.
- Lehen urratsa ebaluazioaren planifikazioa, bigarrena, planifikatzen dena gelaratzea.

IHPan zehar ebaluazioari dagozkion erabakiak hartu behar dira eta erabaki horiek bi multzotan banatzea proposatzen da: autonomia eta autorregulazioa indartzen du.

1. multzoa: argudiaketa curricularra eta ondorioei lotutako erabakiak:

Helburu nagusietako bat da curriculumak ikasle guztien beharretara eta testuingurura egokitzea, ikaskuntza esanguratsua eta testuinguruan kokatua sustatzeko. Horretarako, erabakiak hausnarketa sakon batean eta parte-hartze prozesu baten ondorioz hartu behar dira.

Beraz, garrantzitsua da ikastetxe mailan argi izatea nola antolatuko diren konpetentzia espezifikoak, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak, maila, ziklo, arlo eta eremu bakoitzari dagokionez; bai eta kalifikazio-irizpideen zehaztasuna ere, ikasleen garapen integrala eta irteera-profilaren lorpena ziurtatzeko. Erabaki horiek guztiak ibilbide osoan zehar koherentziaz eta jarraipenaz aplikatu behar dira.

Horrenbestez ondorengo erabakiak hartu behar dira:

A — Konpetentzia eta ebaluazio irizpideen antolaketa eta ponderazioa: antolaketa orokorra egin eta zehaztu bakoitzak zein pisu izango duen, barne lotura eta koherentzia horizontala eta bertikala bermatuz, betiere gure ikastetxeko testuingurua oinarri hartuta, eta Dekretuak jaso bezala, ziklo bakoitzaren barruan behin baino gehiagotan lantzeko eta eskuratzeko aukera eskainiz.

B — Ebaluazio-irizpideen jardun-mailak:

ikastetxe bakoitzak jardun-mailen inguruko erabakiak hartu, barne lotura eta koherentzia horizontala eta bertikala bermatuz.

C — Oinarrizko Jakintzen antolaketa:

antolaketa orokorra egin, barne lotura eta koherentzia horizontala eta bertikala bermatuz.

D — Kalifikazio irizpideak: zehaztu zein kasutan izango den, gutxiegi, nahikoa, ongi, oso ongi edota bikain.

E — Promozio eta titulazio erabakiak: ziklo bakoitzeko arloei dagokien eskuratzeko maila, zein ikaslearen garapen pertsonala eta soziala. Zehazten diren salbuespen neurriek koherentzia horizontala eta bertikala dutela bermatu. Promozio erabakiak modu kolegiatuan hartu. (Promozio erabakiak atalean sakonduko da)

 Ikus T.O. 17 A Argudiaketa Curricularra

2. multzoa: erabaki pedagogikoak:

Ebaluazioak jarraitua izan behar du, ebaluazio hezigarri eta hezitzailea uztartuz. Atzeraelikadura eraginkorra eskaini behar du ikasleek ikaskuntza-prozesua ulertu eta hobetzeko.

Metakognizioa bultzatu behar du, ikasleek beren pentsamendua eta estrategiak aztertu eta erregulatu ditzaten. Transferentzia-jarduerak ere barne hartu behar ditu, ikasitakoa egoera berrietara aplikatzeko gaitasuna garatzeko. Prozesu honetan tresna eta erreminta egokiak hautatu eta erabili behar dira, ikaskuntza-prozesua hobeto eramateko eta ebaluazioa eraginkorragoa izateko. Beraz, erabakiak era kolegiatuan eta koordinatuan hartu behar dira, ikaslearen beharretara egokituta.

Horrenbestez ondorengo erabakiak hartu behar dira:

A — Ebidentzien jasoketa eta azterketarako tresnak eta erremintak zehaztu: ikastetxe mailan ebidentziak jasotzeko eta horiek aztertzeko erabiliko diren tresnak eta aztertzeko erremintak zehaztu koherentzia horizontala eta bertikala bermatuz.

B — Ebaluazio hezitzailea eta hezigarria: ikastetxe mailako irizpideak zehaztu, koherentzia horizontal eta bertikala bermatuz. Funtzio horiek bermatzeko, atzeraelikadura, transferentzia jarduerak, metakognizioa, irakaskuntza estrategiak eta ikasleen autonomia eta autoerregulazioa aurrera eramateko irizpideak zehaztu (nola, noiz, zenbatero...). Horrez gain, ebaluazioak hasierakoa, jarraia eta amaierakoa izan behar du; baita pertsonalizatua ere. Hortaz, alderdi horiek bermatzeko ere erabakiak zehaztu.

 Ikus T.O. 18 Ebaluazioa (B Erabaki pedagogikoak)

Promozio erabakiak

▪ Zer dira?

Promozio-erabakiak hezkuntza-prozesuaren barruan hartzen diren erabaki garrantzitsuak dira, ikasle batek mailaz edo etapaz aurrera egin dezakeen zehazteko.

Oinarrian dago ikasleak beharrezko konpetentziak eta helburuak lortu izana, eta erabaki horiek beti indarrean dagoen araudian (75/76/77 Dekretuak eta 2024ko Ebaluazio Agindua) oinarritzen dira.

Mailaz ez igarotzea salbuespenezko neurria da, eta araudiak etapa bakoitzerako aukera eta mugak zehazten ditu (Lehen Hezkuntzan behin, DBHn gehienez bi aldiz, etab.).

▪ Zertarako balio dute?

Promozio-erabakiak funtsezkoak dira ikasleen hezkuntza-ibilbidea orientatzeko eta haien garapen integrala bermatzeko.

Aurrerapena eta konpetentzien eskuratzea neurtzen dute.

Irakasle-taldeari informazioa ematen diote hezkuntza-jarduera egokitzeko.

Ekitatea eta inklusioa sustatzen dituzte, ikasleen egoera pertsonalak eta sozialak kontuan hartuta.

Hezkuntza-sistemaren kalitatea eta koherentzia bermatzen dute, ikasleek hurrengo mailarako beharrezko oinarriak eskuratu dituztela ziurtatuz.

▪ Nola eraman aurrera?

- Erabakiak irakasle-taldeak era kolegiatuan hartuko ditu, lege eta aginduetan ezarritako irizpideak oinarri hartuta.
- Mailaz ez igarotzea salbuespen gisa ulertuko da; aurretiaz, ikastetxeak irizpide orokorrak eta erabakiak dokumentatzeko prozedurak zehaztuta izan behar ditu.
- Erabakietan kontuan hartu beharko dira:
 - Ikaslearen garapen pertsonala eta soziala.
 - Autonomia eta lan-ohiturak.
 - Jarduera pertsonalizatuen eraginkortasuna (JPP).
 - Familien eta ikasleen iritzia, eta hala badagokio, aholkularitza-zerbitzuaren iritzia.
- Etapa bakoitzean (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa) araudi espezifikoak zehazten du jarraitu beharreko bidea.

 Ikus T.O. 19. Promozio erabakiak

Aniztasuna eta inklusiorako trataera curriculum zehaztapenetan

▪ Zer da?

Aniztasunaren eta inklusioaren trataerak ikasle guztientzako hezkuntzarako aukera-berdintasuna bermatzea du helburu, benetako parte-hartzea eta inklusioa sustatuz. (Ikus 6. ardatza)

Ikasleen aniztasun fisiko, sentsorial, kognitibo eta emozionalari erantzuten dio, haien ongizatea eta irteera-profila lehenetsiz.

Euskal Eskola Publikoa Eraldatzeko I. Plan Estrategikoak ezartzen duenez, ikuspegi honek bat egin behar du Eskola Inklusiboa Garatzeko Esparru Planarekin, Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU) aplikatuz eta sare soziosanitarioarekin (Osakidetza eta Gizarte Zerbitzuak) koordinazioa bermatuz.

▪ Zertarako balio du?

Ikasle guztien garapen integrala sustatzeko. Ikaskuntzarako oztopoak minimizatzeke eta aukerak handitzeko. Ekitatea eta kalitatezko hezkuntza bermatzeko. Balio pertsonalak eta sozialak garatzeko: autonomia, erresilientzia, enpatia, espiritu kritikoa eta konpromiso soziala. Azken batean, ikasle bakoitzari bere potentziala garatzeko eta bizitzako egoerei aurre egiteko tresnak ematea du xede.

▪ Nola eraman aurrera?

- Diagnostiko partekatu bat egitea (norbanako zein talde mailan):
 - Zer egiten dugu?
 - Nola egiten dugu?
 - Zer hobetu dezakegu?

- Diagnostiko horretatik abiatuta, planifikazioa eta esku-hartze bateratua diseinatzea.
- Aniztasunaren trataera bizikidetza-, irisgarritasun- eta hezkidetza-planekin lerrokatzea.
- Ikastetxeko espazio eta baliabideen irisgarritasuna bermatzea (ikasle, familia eta langileentzat).
- Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala (IDU) curriculumaren printzipio gisa txertatzea, estrategia didaktiko eta metodologikoetan oinarri hartuta.

 Ikus T.O. 20. Aniztasuna eta inklusiorako trataera

Estrategia didaktiko eta metodologikoak

▪ Zer da?

Metodologia da irakasleen jarduna helburu pedagogikoetara bideratzen duen estrategia, teknika eta baliabideen multzoa, hau da, ikasleen ikaskuntza sustatzeko bidea. Euskal Eskola Publikoa Eraldatzeko I. Plan Estrategikoaren arabera, ikastetxeek irakaskuntza-espazio malgu, erabilera anitzeko eta diziplinartekoak garatu behar dituzte, konpetentzietan oinarritutako irakaskuntza eta metodologia aktiboak ahalbidetzeko.

Metodologia aktiboek ikaslea ikaskuntza-prozesuaren erdigunean jartzen dute, parte-hartze, lankidetza eta autonomia sustatuz. Haien bidez, pentsamendu kritikoa, sortzailea eta metakognitiboa garatzen da, eta ezagutza errealean aplikatzeko gaitasuna lantzen da. Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren (IDU) printzipioek eta baliabide digitalen erabilerak irakasleen jarduna aberasten dute, ikaskuntza pertsonalizatu eta inklusiboa bultzatuz.

▪ Zertarako balio dute?

- Ikasleen garapen integrala eta ikaskuntza esanguratsua sustatzeko.
- Ikasleen motibazioa, autonomia eta parte-hartze aktiboa indartzeko.
- Pentsamendu konplexua garatzeko: kritikoa, logikoa, sortzailea eta metakognitiboa.
- Lankidetzak, berrikuntza eta etengabeko hobekuntza pedagogikoa bultzatzeko.
- Ikasleak erronka pertsonal, sozial eta profesioletarako prestatzen ditu, gizartearen erronkei modu eraginkorrean erantzuteko.

▪ Nola eraman aurrera?

1. Diagnostikoa egitea: Ikastetxean aplikatzen diren estrategia metodologikoak, baliabideak, espazioen erabilera, denboraren antolaketa eta IDUren integrazioa aztertzea.
2. Erabaki kolegiatuak hartzea: Diagnostikotik abiatuta, koherentzia horizontala eta bertikala bermatuko duten irizpide eta orientazio metodologikoak zehaztea.
3. Inplementazioa eta jarraipena: Erabaki metodologikoen garapena eta ebaluazioa sistematizatzea, irakasleen esku-hartze koordinatua eta etengabeko hobekuntza bermatuz.

 Ikus T.O. 21. Estrategia didaktiko eta metodologikoak

Programazio didaktikoak egiteko irizpideak

▪ Zer dira?

Programazio didaktikoa da curriculum-plangintzarako tresna pedagogiko nagusia, irakasleek ikas-irakaskuntza prozesua modu koordinatuan garatzeko erabiltzen dutena.

Tresna honek curriculum-a testuingurura, ikasleen ezaugarrietara eta irakasleen jardun metodologikora egokitzen du, eta ebaluazioa bere oinarri nagusietako bat da.

Programazio didaktikoek honako osagai nagusiak jasotzen dituzte:

- Irteera-profilari lotutako funtsezko konpetentziak.
- Arlo edo jakintzagaien konpetentzia espezifikoak eta ebaluazio-irizpideak.
- Oinarrizko jakintzak, estrategia metodologikoak eta aniztasunari erantzuteko jarduerak.
- Ebaluazio-prozedurak eta programazioaren berrikuspen eta hobekuntza-mekanismoak.

▪ Zertarako balio du?

- Ikaskuntza eta irakaskuntza-prozesua planifikatu eta hobetzeko tresna da.
- IHPan jasotako curriculum-erabakietan oinarritzen da, eta ikastetxeko ildo pedagogikoa eta koherentzia didaktikoa bermatzen ditu.
- Irakasleen jardun profesionalaren parte da, ikasleen arrakasta eta irakasle-taldeko erabaki partekatutakoak sustatuz.
- Aldi berean, arau-betebehar bat da, ebaluazio objektiboaren eta gardentasunaren printzipioak bermatzeko (ikasleei eta familiei ebaluazio-irizpideak ezagutaraziz).

▪ Nola eraman aurrera?

1. Koherentzia eta bateratze instituzionala: Ikastetxeak programazio didaktiko bateratu eta koherenteak izan behar ditu, IHPan hartutako erabakiekin lerrokatuta.

2. Bi egoera posible:
 - Programazioak eginda dituzten ikastetxeak: IHPko erabakiak programazioetan txertatu direla ziurtatu behar dute.
 - Programazio berriak behar dituzten ikastetxeak: IHPko erabakiak oinarri hartuta, programazio berriak diseinatu behar dituzte (adib. arlo berriak edo diziplinarteko proiektuak).
3. Formatua eta osagaiak:
Ikastetxe bakoitzak bere formatuan landu dezake, baina Ebaluazio Aginduaren 8. artikuluan jasotako osagai guztiak jaso behar ditu.
4. Laguntza-tresnak:
Programazio Didaktikoak Prestatzeko Gida erabil daiteke, txantilo, kontrol-zerrenda eta berrikuspen-ereduak eskaintzen dituen, etengabeko hobekuntza errazteko.

 Ikus T.O. 22. Programazio didaktikoak

Ikasegoerak egiteko irizpideak

Euskal Eskola Publikoa Eraldatzeko I. Plan Estrategikoak azpimarratzen du ikaskuntza-egoeren plangintzak ikasleen parte-hartze aktiboa eta proaktiboa sustatu behar duela. Horrek esan nahi du ikasleek beren ikaskuntza-prozesuaren diseinuan, garapenean eta ebaluazioan inplikatu behar direla.

▪ Zer dira?

Ikasegoerak dira ikasleek funtsezko eta espezifikoak diren konpetentziak garatzeko eta aplikatzeko diseinatutako jarduera multzoak. Egoera horiek programazio didaktikoaren barruan kokatzen dira eta ikasgelako egunerokotasuna gidatzen dute, hau da, curriculumaren garapena praktikara eramateko tresna dira.

Euskal Eskola Publikoa Eraldatzeko I. Plan Estrategikoak azpimarratzen du ikas-egoerek ikasleen parte-hartze aktiboa eta proaktiboa sustatu behar dutela, ikasleak bere ikaskuntza-prozesuaren diseinuan, garapenean eta ebaluazioan inplikaturik.

▪ Zertarako balio dute?

- Konpetentzien garapena eta ikaskuntza esanguratsua ahalbidetzeko.
- Ikasleen autonomia, parte-hartzea eta arazo-konpontzeko gaitasuna indartzeko.
- Ikasitakoa egoera errealean aplikatzeko aukera emateko.
- Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsalaren (IDU) printzipioen bidez inklusioa eta aukera-berdintasuna bermatzeko.
- Ikasturte-programazioa egituratzeko, edozein maila edo arlotan, ikuspegi konpetentzialean oinarrituta.

▪ Nola eraman aurrera?

- Ikasegoerak programazio didaktikoaren parte dira, eta IHPan jasotako erabakiekin bat etorri behar dute.
- Diseinuan, kontuan hartu behar dira ikastetxearen testuingurua eta ikasgelako errealitate hurbila.
- Bi egoera posible:
 - Ikas-egoerak eginda dituzten ikastetxeak: ziurtatu IHPko erabakiak programazioetan txertatuta daudela.
 - Ikas-egoerak berriak behar dituzten ikastetxeak: IHPko erabakiak oinarri hartuta diseinatu.
- Prozesua errazteko, erabil daitezke “Programazio Didaktikoak Prestatzeko Gida”-ko txantilo eta kontrol-zerrendak, etapa guztietarako egokituak (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa).

ibilbide batean zein bestean, lagungarri izan daiteke argitaratuta dagoen [programazio didaktikoak prestatzeko gida](#) (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa). Bertan, ikas-egoera egiteko txantiloia, hori ebaluatzeko kontrol zerrenda eta berrikusteko, ebaluatzeko eta aldatzeko txantiloiak proposatzen baitira.

 Ikus T.O. 23. Ikasegoerak

Laburbilduz

Curriculum-zehaztapenen atalarekin amaitzeko, azpimarratu behar da ikastetxeko hezkuntza-proiektuaren baitan hartzen diren erabaki guztiek norabide argia ematen diotela ikasleen prestakuntzari. Erabaki horiek ezin dira modu isolatuan hartu, baizik eta elkarren arteko koherentziaz eta integrazioz eraiki behar dira, ikastetxearen identitatea eta helburuak zehaztuz.

Horregatik, ezinbestekoa da IHPan jasotako printzipio, balio eta helburuak eguneroko jardunean eta programazio didaktikoetan modu praktikoan txertatzea, betiere ikasleen beharrei eta testuinguruaren eskariei egokituta. Prozesu honetan, irakasleen lankidetzeta eta konpromisoa funtsezkoak dira, euren esku-hartze bateratu eta arduratsuari esker curriculumaren elementuak modu integratuan lantzeko aukera ematen baitute.

Era berean, ebaluazioak ikasleen ikaskuntza-prozesua etengabe planifikatu, aztertu eta hobetzeko aukera eskaintzen du, eta, hortaz, diseinuaren eta prozesuaren parte izan behar du une oro.

Azken batean, curriculumaren zehaztapenei koherentziaz heltzeak eta elementu guztiak modu integratuan lantzeak ikasleen garapen osoa sustatuko du, ikasleak pertsona autonomo, arduratsu eta gizartearekiko konprometitu bihurtuz, gizartearen eraldaketan parte hartzeko gai izango diren herritar aktiboak izatera bideratuz, hori baita irteera-profilak bilatzen duena.

 Ikus T.O. 24. Laburpena

5. Ardatza: Irakasleak eraldaketa prozesuaren ardatz gisa

IRAKASLEEN ETENGABEKO GARAPEN PROFESIONALA

Kalitatezko hezkuntza bermatzeko, Euskal hezkuntza sistemak irakasleen garapen profesionala ardatz nagusitzat hartzen du. Curriculum garapenak etengabeko prestakuntza, lankidetzeta eta berrikuntza pedagogikoa sustatu behar ditu, irakasleek gaitasun profesionalak garatu eta eguneratzeko aukera izan dezaten.

▪ Zer da?

Irakasleen garapen profesionala etengabeko prestakuntza eta eguneratze prozesu bat da, irakasleei beren ezagutza, trebetasun eta gaitasun pedagogikoa hobetzeko aukera ematen diena.

Prozesu horren barruan hasierako prestakuntza, irakaskuntza ibilbide osoko ikaskuntzak, espezializazio-ikastaroak, berrikuntza metodologikoa, ikaskuntza komunitateetan parte hartzea eta norberaren hezkuntza jardunari buruzko gogoetak sartzen dira. Irakasleak irakaskuntzaren erronkei aurre egiteko eta ikasleen eta gizartearen behar aldakorrei erantzuteko prestatuta daudela bermatzea du helburu.

- Zertarako balio du?

Irakasleen garapen profesionala funtsezkoa da hezkuntza-kalitatea hobetzeko; izan ere, irakaskuntza jarduera eguneratzea eta aberaste ahalbideratzen du. Etengabeko prestakuntzan dauden irakasleak gai dira metodologia berritzaileak aplikatzeko, ikaskuntza esanguratsuagoa eta bidezkoagoa sustatzeko, eta ikasleen motibazio eta errendimendua hobetzeko. Gainera, hezkuntza komunitatea indartzen laguntzen du, elkarlana eta eskola inklusiboagoa, eraginkorragoa eta bikaintasunera bideratuagoa eraikitzea bultzatuz.

- Nola eraman dezakegu aurrera?

Irakasleen garapen profesionala sustatzeko hainbat estrategia daude, hala nola prestakuntza ikastaro espezializatuak, non irakasleek beren ezagutza eta trebetasunak eguneratu ditzaketen, eta Praktika Komunitate Profesionalak (PKP) esperientziak partekatzeko eta ikaskuntza aktiboa eta kolaboratiboa bultzatzeko. Adostutako neurriak IUP-ean jaso behar dira. Ikaskuntza komunitate profesionaletan lan eginez, irakasleek praktika onak partekatzen eta elkarlanean ikerketa praktikoak egiten, beren metodologiak berritzeko eta eraginkortasuna handitzeko aritzen dira. Horrez gain, autoebaluazioa eta hausnarketa funtsezkoak dira, norberaren praktikak hobetzeko. Azkenik, mentoretza eta coaching programak esperientzia handiagoa duten komunitateko beste kideen laguntza jasotzeko aukera ematen dezakete, garapen profesionala eta pertsonala indartuz.

 Ikus G.O. 4 Irakasleen etengabeko garapena





Ekitatea eta gizarte- kohesioa

Ekitatearen eta gizarte kohesioaren dimentsioak hezkuntza-sistemaren balio sozial eta etikoak islatzen ditu. Ikastetxe inklusibo eta bidezko batek ikasle guztien beharrak kontuan hartzen ditu, bakoitzaren aniztasuna aberastasun gisa ulertuta. Aldi berean, bizikidetza, hezkidetza eta ongizate emozionalaren aldeko lanak komunitate seguru, parte-hartzaile eta osasuntsuak eraikitzen ditu, non ikaskuntza eta elkarbizitza uztartzen diren.

6. Ardatza: Ekitatea eta inklusioa

Hezkuntza-sistemaren helburu nagusietako bat da ikasle guztien aukera-berdintasuna bermatzea eta bakoitzari bere gaitasunak garatzeko behar dituen baliabideak eskaintzea. Horretarako, ezinbestekoa da eskola inklusiboa eraikitzea, aniztasunari erantzun egokia emanaz eta ikasle guztien partaidetza eta arrakasta sustatuz. Aldi berean, bizikidetza positiboa eta hezkidetzan oinarritutako ingurune seguruak bultzatu behar dira, non errespetua, elkartasuna eta berdintasuna balio nagusi bihurtzen diren. Azkenik, ikasleen ongizate pertsonala eta hezkuntza emozionala indartzea funtsezkoa da, ikaskuntza-prozesu osasuntsu eta orekatu baten oinarri sendoak eraikitzeko.

Eskola inklusiboaren ikuspegia

▪ Zer da?

Eskola inklusiboak bermatzen du ikasle guztiek kalitatezko hezkuntza izan dezaketela, eta bere xede nagusia da ikasle guztiek garapen-mailarik handiena lortzea, bizitzarako konpetentzien garapen osoa bultzatuz.

Hezkuntza inklusiboak aniztasuna oinarritzat hartzen du, eta haur eta gazte guztiei hezkuntza bidezkoa, justua eta aukera-berdintasunean oinarritua eskaintzea du helburu.

Benetako bikaintasuna ez datza emaitza berdinak lortzean, baizik eta ikasle bakoitzak bere ahalmen pertsonalak ahalik eta gehien garatzean, irteera profilean aurreikusitako oinarritzko konpetentziak eskuratuz.

Konpromisoa eta ikuspegi partekatua

Hezkuntza inklusiboak konpromiso aktiboa eta jarrera partekatua eskatzen du aniztasunaren aurrean.

Horregatik, hezkuntza-komunitate osoak, zuzendaritzak, irakasleek, ikasleek, familiek eta ingurune sozialeko eragileek printzipio inklusibo berak partekatu eta jardun bateratua bermatu behar dute.

Eskola inklusiboaren oinarritzko printzipioak Aniztasunari erantzun eraginkorra emateko, kontuan hartu behar dira eskola inklusiboaren hiru oinarri nagusiak:

1. Presentzia: ikasle guztiek eskola-komunitatean egoteko eta parte hartzeko aukera izatea.
2. Parte-hartzea: ikasle guztiek ikaskuntza-prozesuetan eta eskolako bizitzaren jardura guztietan parte aktiboa izatea.
3. Ikaskuntzaren emaitzak: ikasle guztien ikaskuntza-aurrerapena eta garapen pertsonala bermatzea.

Irizpide inklusiboak eta ekintza-ildoak Ikastetxe inklusibo baten garapenerako, jarraitu beharreko irizpide nagusiak hauek dira:

- Eskola-komunitate osoa barne hartzea, aniztasuna errespetatuz eta desberdintasunak gaingitzen lagunduz.
- Ikaskuntzarako eta parte-hartzerako oztopoak hauteman eta ezabatzea.
- Testuinguruarekiko elkarreraginean sortzen diren premiak kontuan hartzea.
- Hezkuntza-laguntzako premien hautemate goiztiarra sustatzea eta sakontzea.
- Estrategiak adostea eta jardunak planifikatzea, eragile guztien arteko koordinazioa bermatuz.
- Giza eta baliabide materialen erabilera irizpide inklusiboetan oinarritzea, baita espazioen antolamendua ere.
- Jardura guztiak ohiko eskola-testuinguruan txertatzea, ikasleen segregazioa saihestuz.

Aniztasunari erantzuna ematea

Aniztasunari erantzuteko, ezinbestekoa da hezkuntza-komunitate osoaren adostasunak eta akordioak lortzea. Akordio horiek Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan jasoko dira, eta Ikastetxeko Aniztasunari Arreta Emateko Plana ardatz honen oinarria izango da.

▪ Zertarako balio du?

- Ikasle guztien garapena bermatzeko eta hezkuntza-arrakasta sustatzeko.
- Irakasle eta hezkuntza-profesionalen arteko koordinazioa eta lankidetzaren sendotzeko.
- Baliabideen antolaketa eta erabilera eraginkorra bultzatzeko.
- Zailtasunak dituzten ikasleei arreta integrala emateko.
- Eskola-komunitate osoaren inplikazioa eta erantzukizun partekatua bermatzeko

▪ Nola eraman dezakegu aurrera?

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan, ekitatearen eta inklusioaren 6. ardatzari dagokionez, ikastetxeak esparru honi lotutako erabaki orokorrak zehaztuko ditu, besteak beste:

- **Inklusioaren printzipio orokorrak:** ikastetxeak nola ulertzen duen inklusioa eta ekitatea, eta zein den aniztasunari erantzuteko bere konpromiso instituzionala.
- **Aniztasunari erantzuteko ikuspegia eta antolaketa:** nola bermatzen den ikasle guztien presentzia eta parte-hartzea; antolaketa inklusiboaren irizpideak (taldekatzeak, laguntzak, baliabideen erabilera).
- **Hezkuntza-laguntzaren antolaketa eta koordinazioa:** nola identifikatzen eta baloratzen diren premiak, nola planifikatzen diren jardunbide pertsonalizatuak, eta

nola koordinatzen diren esku-hartzeak (orientazioa, tutoretza, beste zerbitzuak).

- **Kultura eta harreman inklusiboak:** eskola-giroan nola sustatzen den parte-hartzea, bizikidetzaren eta tratatu onaren ikuspegia.
- **Familien eta komunitatearen parte-hartzea:** nola txertatzen eta inplikatzeko diren familiak eta inguruko eragileak aniztasunaren tratamenduan eta eskola-bizitzan.

 Ikus G.O. 5. Ekitatea eta inklusioa

Aniztasunari erantzuna emateko planaren

ikastetxeak zehaztuta duena oinarri hartuko da.

7. Ardatza: Bizikidetzaren, hezkidetzaren eta ongizate sozioemozionala

Eskola-ingurune seguruak eta bizikidetzaren positiboan oinarritutako sustatzea funtsezkoa da ikasleen garapen integralerako. Horrek esan nahi du errespetua, berdintasuna eta elkarlana balio nagusi izatea, hezkidetzaren ikuspegitik diskriminaziorik gabeko espazioak sortuz. Aldi berean, ikasleen ongizatea eta hezkuntza emozionala indartzea beharrezkoa da, euren autoezagutza, enpatia eta gatazken kudeaketa hobetuz, eta horrela ikaskuntza-prozesua osasuntsu eta orekatu batean garatzea ahalbidetuz.

Bizikidetzaren plana

▪ Zer da?

Bizikidetzaren Plana dokumentu estrategikoa da, hezkuntza-komunitateak bizikidetzaren positiboa eraikitzeke hartutako erabakien ondorioz sortua. Ikastetxeen ezaugarrietara, beharretara eta testuingurura egokituko da, gatazkak prebenitzearen kultura zabalduz.

- Zertarako balio du?

Ikastetxean bizikidetza positiboa eta errespetuzkoa sortzeko tresna da, gatazkak prebenitzen eta kudeatzen ditu, ingurune segurua eta inklusiboa bermatzen du, eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartzea bultzatzen du, ikasleen garapen pertsonala zein akademikoa hobetzen lagunduz. Laburbilduz, bizikidetza plana ez da soilik arazoak konpontzeko tresna; ikastetxe osasuntsu, seguru eta inklusibo bat eraikitzeko oinarria da.

Hezkidetza Plana

- Zer da?

Ikastetxeko Hezkidetza Plana tresna estrategikoa da, eta haren bidez ikastetxeak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen du, sexismoa, indarkeria matxista eta genero-estereotipoak gainditzeko hezkuntza-esparru guztietan.

- Zertarako balio du ?

Hezkidetza Plana ikastetxeetan genero-berdintasuna modu sistematiko eta eraginkorrean lantzeko da, ikuspegi hezkidetzailea sustatuz eta ikastetxeko esparru eta toki guztietara hedatuz, atsedena dia barne.

Helburua da ikasleen garapen osoa eta askatasuna bermatzea, generoaren araberako bereizkeria eta indarkeriarik gabe. Horretarako, hezkuntza-komunitate osoaren inplikazioa bilatzen du, ikastetxearen eguneroko praktikatik abiatuta. Planak hausnarketa, ekintza eta etengabeko hobekuntza uztartzen ditu.

Tutore-Orientazio Plana

- Zer da?

Tutoreak zuzentzen duen orientazio departamentuaren aholkularitzarekin eta gainerako irakasle taldearen inplikazioarekin taldeko eta banakako ekintza antolatuen multzoa da.

- Zertarako?

Oinarrizko Hezkuntza eta Batxilergoa amaitzean ikasleen irteera-profilean aurreikusitako funtsezko konpetentziak eskuratzeko testuinguru egokia eskaintzen du, ikasle guztien garapen pertsonala, soziala eta akademikoa bultzatzeko.

 Ikus G.O. 6 . Bizikidetza, hezkidetza eta ongizate sozioemozionala



Etengabeko hobekuntza eta jasanga- rritasuna

Etengabeko hobekuntzaren eta iraunkortasunaren dimentsioak ikastetxearen garapen estrategiko eta berritzailea bultzatzen du. Digitalizazioaren eta jasangarritasunaren ikuspegiak etorkizuneko hezkuntza eraikitzen laguntzen dute, baliabideen erabilera arduratsua eta berrikuntza teknologikoa uztartuz. Nazioartekotzeak, bestalde, ikasle eta irakasleei mundu globalizatuan konektatzeko eta ikasteko aukerak eskaintzen dizkie. Eta ebaluazioaren eta berrikuntzaren kulturak ziurtatzen du ikastetxearen jarduna etengabe aztertzen, hobetzen eta berritzen dela.

8. Ardatza: Digitalizazioa eta jasangarritasuna

Jasangarritasuna, Ingurumen Hezkuntza eta Berrikuntza

Euskal hezkuntza sistemak jasangarritasuna, ingurumen-hezkuntza eta berrikuntza ardatz dituen hezkuntza eredu bat sustatzen du. Curriculum garapenak ingurumenarekiko kontzientzia eta konpromisoa bultzatu behar ditu, ikasleak garapen jasangarriaren erronkei aurre egiteko beharrezko konpetentziak gara ditzaten. Jasangarritasuna ikastetxea osatzen duten eragile guztien ardura da, eta hezkuntza-komunitateak elkarrekin lan egin behar du ingurumenarekiko errespetua eta herritartasun arduratsua sendotzeko. Ikastetxeko Hezkuntza proiektuan jasangarritasuna, klima-aldaketaren aurkako borroka eta kontsumo arduratsua sustatzeko ekintzak planifikatu behar dira, inguruneke ezaugarriak kontuan hartuta, ikasleek etapa bakoitzaren amaieran beharrezko ezagutza eta konpromisoa lor dezaten.

▪ Zer da?

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuak jasangarritasunaren inguruan ikastetxean adostutako helburuak zehaztu beharko ditu, irizpide eta erabaki nagusiak, hezkuntza-komunitate osoan jasangarritasunaren kultura sustatzeko. Helburua da ikastetxearen eraldaketa integrala sustatzea, ibilbide partekatu eta sistematiko baten bidez. Curriculumari, antolakuntzari, harremanei eta espazio fisikoari eragiten dio, ikuspegi sistemiko eta holistiko batetik. Jasangarritasun ekologikoa eta justizia soziala ardatz hartuta, jarrerak, konpetentziak eta konpromisoak garatzea du xede, jasangarritasuna bizipen bihurtuz eguneroko jardunean.

Planak, jasangarritasunaren eta herritartasun globalaren ikuspegia hezkuntza-jardueretan eta antolakuntzan txertatzeko ildo nagusiak ezartzen ditu, ingurumenaren zaintza, gizarte-justizia, aniztasunaren errespetua, elkartasuna eta tokiko zein globaleko konpromisoa uztartuz.

▪ Zertarako balio du?

- Egungo erronka globalen aurrean (klima-aldaketa, desberdintasun sozial eta ekonomikoak, biodibertsitatearen galera...) hezkuntza sistemak erantzun koherente eta eraldatzailea emateko.
- Ikasleen konpetentzia ekosoziala eta herritartasun globalekoa garatzeko: pentsamendu kritikoa, ikuspegi sistemikoa, erantzukizuna, aldaketa eragiteko gaitasuna eta enpatia lantzeko.
- Eskolaren eta tokiko komunitatearen arteko harreman berriak eraikitzeko, justizia soziala eta ingurumenaren zaintza ardatz hartuta.
- Ikasleen protagonismoa eta ahalduntzea bultzatzeko, parte-hartze esanguratsua sustatuz.
- Antolaketa eta baliabideen kudeaketa ikuspegi jasangarri batetik berrikusteko.

▪ Nola eraman dezakegu aurrera?

Esparru honetako beharrak aurrera eramateko. . Plana martxan jartzeko, [fase egituratu bat proposatzen](#) da. Ikastetxe bakoitzak bere testuinguru eta behar zehatzen arabera egokitu beharko du.

Garrantzitsua da hezkuntza-komunitate osoaren inplikazioa eta konpromisoa lortzea, planaren arrakasta bermatzeko.

1. Sentsibilizazioa, lan taldea eta konpromisoa
2. Diagnostikoa
3. Prestakuntza eta ikerketa.

4. Planaren diseinua eta lehentasunak
5. Ekintza-plana eta ezarpena
6. Jarraipena, ebaluazioa eta hurrengo ikasturterako proposamenak

Jasangarritasun plana ezartzea ez da betebeharrak formala, baizik eta ikastetxea biziberritzeko aukera bat, egungo krisi ekosozialari aurre egiteko eta etorkizun jasangarria eraikitzeke tresna eraldatzaile gisa ulertzen dena.

Ikus G.O.7. Jasangarritasuna

Garapen Digitala

Digitalizazioa zeharkako eta funtsezko elementua da Euskal Hezkuntza Sistema eraldatzeko, hezkuntzaren printzipio eta helburuetatik hasita, ikastetxeen kudeaketaraino eta irakasleen prestakuntzaraino, betiere ikuspegi etiko, arduratsua eta pedagogikoarekin. IHPak, teknologiaren integrazio pedagogikoak eta eraldaketa digitalak dakartzaten aldaketak jaso beharko ditu. Horretarako “Digitalizazio eta Berrikuntza Teknopedagogiko” esparrutik baliabide hauek jartzen dira zuen esku:

Ikastetxeko Digitalizazio Plana

▪ Zer da?

Ikastetxeko Proiektu Digitala (IPD) hezkuntza-zentroek beren digitalizazio-prozesua modu sistematikoan eta estrategikoan garatzeko tresna bat da. Proiektu honek zentroko komunitate osoari (irakasle, ikasle, zuzendaritza, administrazioa eta familieei) zuzendutako ikuspegi bateratua eskaintzen du teknologia digitala hezkuntza-prozesuetan integratzeko.

▪ Zertarako balio du?

- Hezkuntza-ikuspegia eta estrategia finkatzeko. Zentroaren beharretara eta testuingurura egokitutako helburu digitalak definitzen ditu.
- Irakasleen eta ikasleen gaitasun digitalak garatzeko: DigCompEdu eta DigComp gisa ezagutzen diren markoak oinarri hartuta, gaitasun digitalak indartzea du helburu.
- Azpiegitura eta baliabideen erabilera optimizatzeko: Baliabide digitalen inplementazioa eta kudeaketa egokia ziurtatzen du.
- Segurtasuna eta datu-subirautza bermatzeko: Zibersegurtasunaren eta pribatutasunaren inguruko neurriak garatzen ditu.
- Arrakala digitalari aurre egiteko: Ikasle guztiei sarbide-berdintasuna eta inklusioa bermatzen dizkie.

▪ Nola eraman dezakegu aurrera?

Hurrengo gida hartu orientabide moduan.
[*Ikastetxeko proiektu digitala egiteko gida.*](#)

Ikastetxeko datu-babesaren protokoloa

▪ Zer da?

Edozein ikastetxek bere erabiltzaileen informazio pertsonala modu seguruan kudeatzeko eta legezko betebeharrak betetzeko estrategiaren diseinua da. Irakasleen, irakasleen eta gainerako langileen datu pertsonalak babestea ezinbestekoa da, batez ere ingurune digital batean lan egiten denean. Horren inguruko erabakiak Ikastetxeko Proiektu Digitalean jaso behar dira.

▪ Zertarako balio du?

- Pribatutasuna bermatzeko: Ikastetxeek ikasleen eta irakasleen datuak behar bezala tratatzen direla ziurtatzeko.
 - Araudia betetzeko: GDPR (Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra) eta Espainiako Datuen Babeserako Legea (LOPDGDD) betetzeko.
 - Segurtasun digitala indartzeko: Datuak babesteko neurri tekniko eta antolakuntzazkoak ezarri behar dira.
 - Arriskuen kudeaketa hobetzeko: Zibererasoen eta datuen iruzurraren aurrean ikastetxearen erantzuna planifikatzen du.
 - Sentsibilizazioa sustatzeko: Hezkuntza-komunitate osoa (ikasleak, irakasleak, familiak) datu-babesaren garrantziaz kontzientziazatzen du.
-
- Nola eraman dezakegu aurrera?

Ikastetxeek etengabe eguneratu behar dituzte datuen babesari buruzko erabakiak, teknologia, araudia eta segurtasun-arriskuak etengabe aldatzen ari direlako. Halaber, konfiantzazko ingurune digital bat bermatu behar dute, non informazioa modu seguruan, arduratsuan eta etikoan kudeatzen den, ikasleen eta hezkuntza-komunitatearen pribatutasuna eta eskubideak babestuz.

 Ikus G.O.8. Garapen digitala

9. Ardatza: Nazioartekotzea

Egungo gizarte globalizatuan gure ikasleak bizitzan zehar izango dituzten erronka nagusiei erantzun ahal izateko eta haien aukera akademikoak eta laboralak areagotzeko, testuinguru eleanitz eta kulturantzunetan murgiltzeko prestatu beharko ditugu. Horrela, gure ikasleek gai lokalak, globalak eta kulturartekoak modu autonomo eta kritikoki interpretatzen ikasiko dute eta beste pertsona, kultura eta mundua ulertzeko ikuskera desberdinen ikuspuntuak balioetsiko dituzte. Funtsezkoa da, beraz, ikastetxeak nazioartera begirada zabaltzea, beste herrialdeetako erakundeekin lankidetzak sustatzeko, irakasleak atzerrian formatuz irakaskuntza-metodoak berritzeko eta gure ikasleei atzerrian ikasteko aukerak emateko. Horretarako, “Nazioartekotzea” esparrutik baliabide hauek jartzen dira zuen esku:

ERAMUS+

▪ Zer da?

Erasmus + Europar Batasunaren programa bat da, hezkuntzan, prestakuntzan, gazterian eta kirolean mugikortasuna eta lankidetzak bultzatzen dituena. Ikasleek, irakasleek eta hezkuntzako profesionalek hainbat herrialdetan trukeak egiteko aukerak eskaintzen ditu, kultura anitzeko ikaskuntza, konpetentzien garapena eta erakundeen arteko lankidetzak sustatuz. Helburua da hezkuntzaren kalitatea hobetzea, inklusioa sustatzea eta parte-hartzaileak mundu globalizatu baterako prestatzea.

▪ Zertarako balio du?

Erasmus+ programak aukera asko eta anitzak ematen dizkie ikasle, irakasle eta ikastetxeei. Ikasleen kasuan, beste herrialde batzuetara bidaiatzeko aukera ematen die, han ikasteko edota hango ikasleekin lankidetzan aritzeko, Irakasleen kasuan, beste herrialdeetan prestakuntza jasotzeko edo lankidetzan proiektuetan parte hartzeko. Ikastetxearen kasuan, Europan dauden ikastetxeetatik ikasteko eta haiekin lankidetzan aritzeko.

▪ Nola eraman dezakegu aurrera?

Europako Batzordeak Erasmus+ programak diru-laguntzak ematen ditu aipatu ditugun jarduera guzti horiek egiteko. Parte-hartzea Europako Batzordearen agentzien bidez kudeatzen da. Agentzia horiek deialdiak eskaintzen dituzte eta ikastetxeak eskaera-prozesuan gidatzen dituzte.

eTwinning

▪ Zer da?

eTwinning Europako onlineko plataforma bat da, hainbat herrialdetako eskolei eta irakasleei internet bidez hezkuntza-proiektuetan parte hartzeko aukera ematen diena. Programa honetan ez dira diru-zukidurarik ematen, beraz, parte-hartzea Erasmus+ baino askoz sinpleagoa da.

▪ Zertarako balio du?

Diziplinarteko proiektu horien bidez, ikasleei aukera ematen zaie Europako beste herrialdetako ikasleekin ideiak trukatzeko, kultur ezberdinak ezagutzeko eta funtsezko gaitasunak garatzeko. Gainera, irakasleentzako prestakuntza eta baliabideak eskaintzen ditu mugikortasun fisikoaren beharrik gabe, hezkuntzaren nazioartekotzea sustatuz.

▪ Nola eraman dezakegu aurrera?

eTwinning-en parte hartzeko, irakasleek Europa Batzordearen plataforma ofizialean erregistratu behar dute (etwinning-ESEP). Parte hartzea doakoa da eta ez du mugikortasun fisikorik eskatzen; horrek, aukera ematen die eskolei modu erraz eta berritzailean nazioartera zabaltzeko.

 Ikus G.O.9. Nazioartekotzea

10. Ardatza: Ebaluazioaren eta berrikuntzaren kultura

Eraldaketa kultura inplementatzeko, etengabeko prestakuntza eta ebidentzietan oinarritutako erabakiak hartzea sustatu behar dira irakasleengan zein ikastetxeetako gainerako lanbide-profiletan, praktikan eta sare-lanean oinarrituta.

Ebaluazioaren kultura

Ebaluazioa, kalitatea eta bikaintasuna sustatzeko funtsezko tresna izanik, ezinbestekoa da ikastetxeetan ebaluazioaren kultura finkatzea eta sendotzea. Horrela, kontrol-mekanismo gisa interpretatu ordez, ebaluazioa ikastetxearen etengabeko hobekuntzarako eta ikaskuntza-prozesuak indartzeko baliabide gisa ulertuko da. Euskal Eskola Publikoaren 2025-2028 Plan Estrategikoaren 10. ardatzak ikaskuntzak hobetzera bideratutako ebaluazio-kultura garatzea proposatzen du, ebaluazioa prestakuntza- eta laguntza-sistemaren maila guztiekin lotuz.

Ikastetxetan ebaluazioaren kultura hedatzeak ahalbidetuko du datuetan oinarritutako erabakiak hartzea, gardentasuna eta kontuak-emateko gaitasuna sendotzea eta jardunbide egokien sistematizazioa egitea.

Horren bidez, ez da soilik ikasleen garapena bultzatuko, baizik eta irakasleen jarduera, zuzendaritza-taldeen maila konpetentzia maila eta ikastetxearen emaitzen kalitatea ere.

Maila horretan, ebaluazio-prozesuek indarguneak eta ahuleziak identifikatzeko aukera ematen dute, bai eta datu objektiboetan oinarritutako hobekuntza-proposamenak formulatzeko ere, sistemaren funtzionamenduan eragin zuzena izanik eta hezkuntza-komunitate osoaren onurarako, bereziki ikasleen mesederako.

Datuen bilketa eta azterketa ez dira helburu gisa ulertu behar, baizik eta etengabeko hobekuntzarako tresna praktiko gisa, ikastetxearen eguneroko bizitzan erabaki pedagogiko eta antolamenduko oinarri gisa integratu beharrekoa.

Horretarako, ikastetxeek beren Hezkuntza Proiektuan ebaluatuko dituzten esparruak identifikatu eta esparru horiek ebaluatzeko mekanismoak zehaztuko dituzte, emaitzen azterketa, hobekuntzak nola eta non zehaztuko diren eta nola egingo den honen guztien komunikazioa, hau da:

- Emaitzak aztertzeke eta interpretatzeko adostasunak
- Ondorioak non eta nola txertatuko diren
- Nola partekatuko diren emaitzak, datuak eta ondorioak hezkuntza-komunitatearekin.

Ebaluaziorako kontuan har daitezkeen esparruak, besteak beste:

A — Ikasleen emaitza akademikoak: ikastetxeek ikasleen ikaskuntzei buruzko informazio zehatza dute, ikastetxeko barne eta kanpo-ebaluazioetatik jasotako datuen bidez. Hala ere, ebaluazioaren balioa datu horiek erabiltzeko moduaren arabera da. Horregatik zehaztuko dute:

- Emaitzen azterketa sistematikoa nola eta noiz egingo den, ikastetxeek barne-ebaluazioetatik ondorioak ateratzeko, hezkuntza-sistemako beste adierazle batzuekin lerrokatuz eta ebaluazioa prozesu erabilgarria eta etengabeko hobekuntzarekin koherentea dela bermatuz.
- Irakasleek noiz eta nola parte-hartuko duten ebaluazioaren emaitzen hausnarketetan.

B — Irakasleen ebaluazioa: Irakasleen ebaluazioari dagokionez, irakasle-jardunaren hasierako behaketa, autoebaluazioa eta koebaluazioa uztartuko dituen sistema bat bultzatuko da.

C — Zuzendaritza-taldearen ebaluazioa: ikastetxeak zuzendaritza proiektua izan edo ez, komenigarria da zuzendaritza-taldeak izatea beren ebaluazio-prozesuaren protagonistak, autoebaluazioa, koebaluazioa eta beste praktika batzuk txertatu eta sistematizatzea.

D — IHPan zehaztu ahal izango da beste esparru batzuen ebaluazio sistematikoa, hala nola, proiektuen, ikerketen eta bestelako jardueren ebaluazioa, hezkuntza-komunitatearen etengabeko hobekuntza eta berrikuntza sustatzeko tresna gisa.

D — ...

Berrikuntzaren kultura

Ikastetxe bakoitzak bere berrikuntza- eta eraldaketa ildoan zehaztasunen erabaki orokorrak txertatuko ditu bere Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan.

Ebaluazioaren eta berrikuntza pedagogikoaren arteko lotura funtsezkoa izango da. Ikastetxeek ebaluazioa diagnostikorako tresna gisa ez ezik, etengabeko hobekuntzarako tresna gisa ere erabil dezakete, garapen metodologikoko arloak identifikatuta eta ikasleen beharrekin bat datozen berrikuntza pedagogikoko prozesuak bultzatuta.

Aldi berean, garrantzitsua izango da ikastetxeko berrikuntza-proiektuen inguruko lana iraunkorra izatea, hau da, zuzendaritza- taldeak eta berrikuntza-arduradunak proiektuak arretaz hautatzea, ikastetxearen lehentasunen eta beharren arabera, eta behar den denboran irautea, ikastetxearen ohiko dinamikan finkatu arte.


BeA figuren (berrikuntza-arduradunen) papera funtsezkoa da: elementu katalizatzaile gisa jarduten dute, ikastetxearen berrikuntza eta hobekuntza dinamizatzeko, koordinatzeko eta biziberritzeko. BeA figuren jardunak – prestakuntza, jardunbide egokien zabalkundea, esperimenezko eta sare-lana– ikastetxearen ikaskuntza-erakunde izaera sendotzen dute, eta berrikuntzaren kultura errotzen laguntzen dute.

Ardatz honetan ere zehaztu dezakete, ikastetxeko berrikuntza proiektuetan unibertsitateekin edo beste entitate batzuekin lankidetzan aritzen diren edota ikerketan oinarritutako hezkuntza- berrikuntza bultzatzen den.

Hortaz, IHPan honako hauek zehaztu daitezke:

- Ikerketarekin lotuta ikastetxeak aurrera eramaten dituen jarduerak, proiektuak... Aldaketa pedagogiko edota metodologikoari erantzuteko zer nolako ikerketa aplikatzen duten.
- Jardunbide egokiak edota esperimenezko bultzatzen duten ekimenen identifikazioa, esaterako, abian dauden edo aurreikusita dauden proiektuak, programak edo neurriak.
- Ikastetxea berrikuntzaren esparruari dagokionez sareetan parte-hartzen duen.
- (BeA) berrikuntza-arduradunen figurek zer nolako hobekuntza-ekintzak bultzatu dituzten, bai eta ekintza horiek gauzatzeko zer nolako koordinazioa, dinamizazioak edota prestakuntza identifikatzen den.

 Ikus G.O.10. Ebaluazioa eta berrikuntzaren kultura



IHParen berrikusketa, doikuntza eta komunikazioa



Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua epe luzerako dokumentu estrategikoa eta erreferentzia-markoa da. Horregatik, ezinbestekoa da hura berrikusi eta eguneratzea, ikastetxearen bilakaerari eta hezkuntza- zein gizarte- testuinguruaren aldaketei behar bezala erantzuteko.

Horretarako hurrengo faseak garatzea komenigarria litzateke:

A. BERRIKUSKETA

Hezkuntza proiektua behar bezala betetzen ari dela ziurtatzeko erregularri ebaluatzeko prozesua da. Lortutako emaitzak aztertu behar dira, hobetu beharreko arloak identifikatu eta ekintzak behar bezala egokitu.

B. DOIKUNTZA


Hezkuntza-proiektuak ikastetxearen, ikasleen eta testuinguruaren behar eta ezaugarrietara egokitzeko duen gaitasunari dagokio. Horrek esan nahi du helburuak, metodoak eta baliabideak egokitu behar direla, proiektua garrantzitsua eta eraginkorra dela bermatzeko.

C. KOMUNIKAZIOA

Hezkuntza-proiektuaren helburuak, aurrerapenak eta emaitzak hezkuntza-komunitateko kide guztiekin (irakasleak, ikasleak, familiak, etab.) transmititzeko eta partekatze modua da. Guztiak informatuta daudela eta prozesuan modu aktiboan parte har dezaketela ziurtatzen du.

 Ikus T.O. 25 Berrikuntza, doikuntza eta komunikazioa





LIBURU HAU IKASTETXE BAKOITZAREN
AUTONOMIATIK ETA TESTUINGURUTIK ABIATUTA
IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUAREN
HELBURU PARTEKATUAK EZARTZEKO GIDA
TEORIKOA DA.

